



EUSKERAZALEAK

ERRENDERIÑ

EUSKERA! Gure izkuntza!
Noiz? Nun? Zergatik? Zertarako?

EUSKERA maite al dugu?
Nola? Zenbaterano?

EUSKERA bizi al da?
Bai? Ez?

.....
Galdera geixko, noski!

Bańan, nola arkitzen da gaur gure EUSKERA?
Nor-berak eman bear erantzuna!

Zenbatek artzen degu denbora pixka bat, egoera au
nolakoa dan aztertzeke?

Zergatik, zertarako pentsatu gai ontaz?
Gauz garrantzitsuagoak baditugu buruan!

Gañera nere seme-alabak Ikastolara bialtzen ditut!
Gutxi al da?

EUSKERAZ ikasten dute! EUSKERAZ mintzatzen dira!
Nun? Noiz? Ikastolan? Etxean? Lagun artean? Bai
al dakizu?

Ikastolara zergatik? Lagun artean adierazteke? «Moda»
dalako?

Ala, egitan zure seme-alabak EUSKALDUN JATORRAK
izatea nai dezulako.

Ikastolako garaia bukatutakoan, zer? Nola mintzatuko
dira zure seme-alabak?

Goi malleko ikastarotan, zoritxarrez, ez dute EUSKERAZ
ikasteko aukerik izango. Eta orduan, zer?

Argi dago, Ikastolako urteak, onak, bearrezkoak eta nai
ta naiezkoak dirala.

Bańan naikoa al da? Eta etxean? Nola mintzatzen gera?
Alde au ere ez ote da bearrezkoa? Eta kalean? Lagun
artean?

EUSKERA maite dugu!
Nola ez, ludiko izkuntzarik zarrenetakoa izanik?

Aztertu al dugu noizbait, beste izkuntzen indarkeriak,
erri ttiketako izkuntza asko eta asko, mendean artuta
dauzkatela eta beste asko betirako galduak dirala?

Egoera ontan arkitzen ote da gure EUSKERA?

Eguneroko izparringi, irrati, urrutikuskin, eskola, kaleko
izketak, ugolde batek artuta bezela, ez ote daramate EUS-
KERA erdi itoan?

Ez ote digu eskua luzatzen laguntza eske?
EUSKERA ez ote dabill larri?

Ugolde orrek iya irentsi du Araba osoa; Naparrua, lautik
iru bańo geiago, galdua dago; Gipuzku eta Bizkai'ko erri
asko zearo erdaldunak ditugu.

Bañan baikorrek izan bear dugula, argi dago!

Alegiñak egingo dituzu! Alegiñak egin bearrean zera!

Zure ekintzetan aundienetako bat, aurrekoak zuri eman-dako izkuntza bizirik eustea da!

Au orrela dela, EUSKERAZALEAK bazkuna, zure alboan, zure inguruan daukazu.

Bañan, zer da EUSKERAZALEAK bazkuna?

Lege barruan dagon erakunde bat dezu. Bere araudiak (estatutoak), agintariak ontzat emanak dituzte, Jakintza bideko eginkizunetan dabill.

Ba da bi urte lanean asi zala. Gipuzku'ko erri geienetan EUSKERAZALEAK taldea sortua dago.

Zer lan egiten ditugu?

Asko giñan, EUSKERAN alde zerbait egireko asmotan, bañan nundik eta nola asi, ez genakigun. EUSKERAZALEAK erakutsi zigun bidea.

Gure lenengo eginkizuna, gaurko EUSKERAREN egoera ikusiaz, izkuntza txukundu, garbitu eta EUSKAL zale-tasuna zabaltzea izan zan.

Erriko dendetan, tabernetan eta abar, iragarki (kartel) urdin batzuek ikusiko zenitun. Ale bakoitzean bost itz azaltzen dira. Ezkerreko aldean eta gurutze batekin urratuak, gaizki erabiltzen ditugun itzak; eta eskubita EUSKERA JATORRIAN diran bezela. Iragarki auek illean bein aldatzen ditugu.

Idazti au irakurtzean bederatzigarren iragarkia jarrita edukiko dezu.

Lendabiziko amabigarrenak auek dira:

- | | |
|---|--|
| 1) Karnizeroa
Primabera
Sekatu (Zapi bat edo)
Sekatu (Landare bat)
Zestoa | ARAKIÑA
UDABERRIA
LEGORTU
IGARTU
OTARRA, SASKIA |
| 2) Panaderoa
Inkilinoa
Leetu
Akordatu
Eskapatu | OKIÑA
MAISTERRA
IRAKURRI
GOGORATU
IGES EGIN |
| 3) Barkua
Peskaderia
Debilidadea
Tartamudoa
Akaso | ONTZIA
ARRANDEGIA
AULERIA
ITZ-MOTELA
AGIAN |
| 4) Frontera
Kontuan erori

Karpinteroia
Komodoa
Tragatu | MUGA
KONTURATU
AROTZA (G)
ZURGIÑA (N)
PATXARAKOIA
IRENTSI |
| 5) Eskojitu
Amistadea
Boda
Estomagoa
Allegatu | AUKERATU
ADISKIDETASUNA
EZTAIAK
URDAILLA
IRITXI |
| 6) Tio
Tia
Pulmoiak | OSABA
IZEBA, IZEKO
BIRIKAK |

Petxua
Kostilla

BULARRA
SAIETS-EZURRA

- 7) Estranjeria
Animalia
Abilla
Funerala
Testigoa

ATZERRIA
ABEREA
TREBEA, YAYOA
ILLETA
LEKUKO

- 8) Sortija
Alajak
Listoa
Preparatu
Apurua

ERAZTUNA
PITXIAK
AZKARRA
PRESTATU, GERTUTU
LARRITU

- 9) Errueda
Erredondoa
Jamoia
Kanteria
Kuelloa

KURPILLA
BIRIBILLA
URDAI-AZPIKOA
ARROBIA
LEPOA

- 10) Bentanilla
Kozineroa
Eskoba
Kaza
Peska

LEIATILLA
SUKALDARIA
ERRATZA
EIZA
ARRANTZA

- 11) Papilla
Kafekonletxea
Karboneria
Nobioa
Nobia

AYA
KAFFE-ESNEA
IKAZTEGIA
SENAR-GAIA
EMAZTE-GAIA
ANDRE-GAIA

- 12) Usatu
Akostumbratu
Kostumbrea
Abundante
Eskas

ERABILLA
OITU
OITURA
UGARI
URRI

Ikasi al dituzu? Onekin bakarrik ez zera lasai geldituko noski?

Bigarren eginkizuna, EUSKERA EGUNA antolatzea izan zan. Abenduak 3'an Alameda Zinean. Bertso, abesti, dantza, olerki eta abar, entzun eta ikusteko aukera izandu gendun.

Bañan au bakarra ez al da oso gutxi?

Ondoren, «slogan» batzuek atera genitun: EUSKERAK LAGUNTZA BEAR UD, EUSKERAZ IRAKURRI ETA MINTZAZU, jendea esnatzeko asmotan. Bañan...

Ilbeltzaren bukaeran asiaz, EUSKERA erakutsi nai zutenentzat, ikastaro bat antolatu gendun, Oñatibia-tar Yon-ek zuzendua. Talde ederra bildu zan eta gaur egun or ari dira gogor eta jator EUSKERA erakusten.

Jorrallean, asiera eman diogu «ERRI DANTZA» izena dun dantza berria erakusten. Bere egunean esan gendun bezela, bai gazteak eta bai zarrak dantzatu dezateke.

Oraingo au bakarra egin degu! Oso gutxi egiten ari gerala uste degu! Geiago egin bearra dago! Ongi dakizun bezela, zure laguntza, egintza guztietarako nai ta naiezkoa dugu!

Gure asmoak.

Len esan degun bezela, EUSKERAZALEAK taldea Gipuzku guztian zabalduak gaude.

Antzeslariiek lanean asiak ditugu.

Erriko eskoletan EUSKERA erakusten asiak gera.

«GOIZ ARGÍ» asterokoa, asko edertu nai degu.
Aurrentzat «TBO»'a, «TXERU», indarberrituta piztu
nai degu.

Ikastoletako liburu geienak egiteko daude.
Irakurgai motx eta atsegiñak ugari argitaratu nai ditugu.

.....
Orain arteko lanakin jarraitu.

Nola lagundu bear diozu zuk EUSKERARI?

Al dan guzian EUSKERA utsean mintzatuaz.

Zure seme-alabak EUSKAL giroan azi eta eziaz.

Dakizun EUSKERA obeagotzen aleginduaz.

EUSKAL aldizkari eta liburuak irakurriaz.

«GOIZ ARGÍ» eta «TXERU»'n arpide egiñaz, eta arpide
berriak arkituaz.

Zure diru laguntza eskeñiaz.

Eta aztu gabe, zure EUSKAL JOKABIDEA nolakoa
izan bear dun erabakiaz.

OARRA: Lengo urteko EUSKERA EGUNA zala ta,
EUSKERAZALEAK dituan asmoak aurrera jarraitzeko,
diru-eskea egin gendun. Idazki onen bidez, eskerrik beroenak
danori.

Edozein galdera edo jakin naia dezula, jo zuzenbide
ontara:

EUSKERAZALEAK- Getari, 21, beian - Utk. 428459
DONOSTI.

ERRENDERI'KO EUSKERAZALEAK TALDEA

